

1. *Euskal Herriko udalen izendegia*  
Euskaltzaindia 2011

2. *Leioako leku-izenak*  
Euskaltzaindia 2011

3. *Aiarako toponimia nagusia*  
Euskaltzaindia 2013

4. *Euskal Herriko ibaiak*  
Euskaltzaindia 2014

La labor de Onomástica de Euskaltzaindia tiene como finalidad el estudio de los nombres, tanto antropónimos (nombres de pila, apellidos...) como topónimos (mayores, menores, exónimos, callejeros, oicónimos...). Tras recoger, clasificar, analizar y establecer la forma normativizada de los nombres, Euskaltzaindia considera imprescindible darlos a conocer, a fin de que las formas correctas vayan implantándose en el uso habitual, al igual que ocurre en toda lengua normalizada. Ese es el objetivo de la presente colección *IZENAK*.

Le travail d'Onomastique d'Euskaltzaindia a pour but l'étude des noms, aussi bien des anthroponymes (prénoms, noms de famille...) que des toponymes (principaux, secondaires, exonymes, noms de rue, noms de maison...). Après les avoir répertoriés, classés, analysés et établis selon les normes, Euskaltzaindia considère indispensable de les faire connaître, afin de favoriser l'emploi habituel des formes correctes, comme c'est le cas de toutes les langues normalisées. Voilà l'objectif de cette collection *IZENAK*.

The main aim of Euskaltzaindia's Onomastic work is the research of basque names that are classified in proper nouns (names of persons, surnames...) and place names (main and minor toponyms, exonyms, street names, house names...). After collecting, classifying, analyzing and deciding the standardized form of those names, Euskaltzaindia considers it is a must to announce them, so that the correct forms are adopted in the every-day use as it happens with any standardized language. That is the purpose of this *IZENAK* collection.



EUSKALTZAINDIA  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



9 78-84-94071799



## EUSKAL HERRIKO IBIAK RÍOS DE EUSKAL HERRIA LES COURS D'EAU DU PAYS BASQUE



*Euskaltzaindiaren Onomastika lanak euskal izenen ikerketa du helburu, bai antroponimoena (ponte izenak, deiturak...) bai toponimoena (toponimia nagusia, txikia, exonimia, kale izendegiak, etxe izenak...). Izen horiek bildu, sailkatu, ikertu eta arautu ondotik, beharrezkotzat jotzen du Euskaltzaindiak izenen forma zuzenak plazaratzea, euskararen erabileran eta normalizazioan eragina izan dezaten. Hori da, hain zuzen ere, IZENAK bilduma honen xedea.*

ARGITALPENAREN PARATZAILEAK:

Patxi Galé  
Andres Iñigo

ONOMASTIKA BATZORDEAN 2008tik 2011ra  
LAN HONETAN ARITUTAKO PARTAIDEAK:

*BURUA:*

Andres Iñigo

*IDAZKARIA:*

Mikel Gorrotxategi

*KIDEAK:*

Patxi Galé  
Imanol Goikoetxea  
Roberto González de Viñaspre  
Jose Luis Lizundia  
Elena Martínez de Madina  
Céline Mounole  
Felix Mugurutza  
Manu Ruiz Urrestarazu





**EUSKAL HERRIKO IBAIAK**  
**RÍOS DE EUSKAL HERRIA**  
**LES COURS D'EAU DU PAYS BASQUE**

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Diseinua: Ikeder, S.L.

Maketazioa: Ikur, S.A.

Inprimategia: Teknigraf, S.L.L.

ISBN: 978-84-940717-9-9

Lege-gordailua: BI-I363-2014

## Aurkibidea

Aurkezpena . . . . .	9
Sarrera . . . . .	11
Hidronimia. . . . .	11
Hidronimiaren ezaugarri bereziak . . . . .	12
Zenbait arazo zehatz . . . . .	13
Arauaren egitura . . . . .	14
<b>Ibaien zerrenda alfabetikoa . . . . .</b>	<b>17</b>
<b>Ibaien zerrenda hierarkikoak eta mapa eskematikoak . . . . .</b>	<b>33</b>
1. Bizkaiko kostaldean itsasoratzen diren ibaiak (denera 38) . . . . .	33
2. Gipuzkoako kostaldean itsasoratzen diren ibaiak (denera 59). . . . .	36
3. Lapurdiko kostaldean itsasoratzen diren ibaiak (denera 91) . . . . .	39
4. Logroño baino gorago Ebron isurtzen diren ibaiak (denera 40). . . . .	43
5. Logroñotik behera Ebron isurtzen diren ibaiak Egaraiño (denera 36) . . . . .	46
6. Aragoi ibaiaren goiko arroa Onsellaraino (denera 45) . . . . .	49
7. Aragoi ibaiaren beheko arroa, Arga salbu (denera 36) . . . . .	52
8. Arga ibaiaren arroa (denera 56) . . . . .	54
9. Aragoi ibaia baino beheago Ebron isurtzen direnak (denera 13) . . . . .	57

## Índice

Presentación. . . . .	63
Introducción . . . . .	65
Hidronimia. . . . .	65
Características distintivas de los hidrónimos . . . . .	66
Algunos problemas concretos. . . . .	67
Clasificación de los ríos . . . . .	68
<b>Lista alfabética de los ríos . . . . .</b>	<b>71</b>
<b>Listados jerárquicos de los ríos y mapas esquemáticos . . . . .</b>	<b>87</b>
1. Ríos que desembocan en la costa de Bizkaia (en total 38) . . . . .	87
2. Ríos que desembocan en la costa de Gipuzkoa (en total 59). . . . .	90
3. Ríos que desembocan en la costa de Lapurdi (en total 91) . . . . .	93
4. Ríos que vierten al Ebro más arriba de Logroño (en total 40) . . . . .	97
5. Ríos que vierten al Ebro más abajo de Logroño hasta el Ega (en total 36) . . . . .	100
6. Cuenca alta del Aragón / Aragoi hasta Onsellaraino (en total 45) . . . . .	103
7. Cuenca baja del Aragón / Aragoi, sin incluir el Arga (en total 36) . . . . .	106
8. Cuenca del Arga (en total 56) . . . . .	108
9. Ríos que vierten al Ebro más abajo del Aragón / Aragoi (en total 13) . . . . .	111

## Index

Présentation . . . . .	117
Introduction. . . . .	119
Hydronymie . . . . .	119
Caractéristiques particulières de l'hydronymie . . . . .	120
Quelques problèmes concrets. . . . .	121
Classification des cours d'eau . . . . .	122
<b>Liste alphabétique des cours d'eau . . . . .</b>	<b>125</b>
<b>Classement hiérarchique des cours d'eau et cartes schématiques. . . . .</b>	<b>141</b>
1. Cours d'eau se jetant sur la côte biscayenne ( 38 au total ) . . . . .	141
2. Cours d'eau se jetant sur la côte guipuzcoane ( 59 au total ) . . . . .	144
3. Cours d'eau se jetant sur la côte labourdine ( 91 au total ) . . . . .	147
4. Cours d'eau se jetant dans l'Ebre en amont de Logroño ( 40 au total ) . . . . .	151
5. Cours d'eau se jetant en aval de Logroño jusqu'à l'Ega ( 36 au total ) . . . . .	154
6. Bassin supérieur de l'Aragon / Aragoi jusqu'à l'Onsella ( 45 au total ) . . . . .	157
7. Bassin inférieur de l'Aragon / Aragoi, excepté l'Arga ( 36 au total ) . . . . .	160
8. Bassin de l'Arga ( 56 au total ) . . . . .	162
9. Cours d'eau se jetant dans l'Ebre en aval de l'Aragon / Aragoi ( 13 au total ) . . . . .	165

# **EUSKAL HERRIKO IBAIAK**





**U**kazina da urak gizadiarentzat izan duen garrantzia, nahitaezko elementua izan baita historian zehar populatze prozesuaren garapenean. Gauza bera esan dezakegu Euskal Herriari dagokionez ere, iturri eta ibai anitzeko lurraldea da, hain zuzen ere, euri ugari eta, orokorrean, urtean zehar nahiko modu orekatuan banatua egiten duelako. Horren ondorioz, ibai, erreka, ugalde edota uhaitz oparotsu eta erregularrak dira eremu geografiko honetakoak, batik bat, Kantauri itsasoan isurtzen direnak. Hegoalderanzko bidea hartzen duten ibaien sarea, berriz, hasieran nahiko sarria eta erregularra bada ere, Ebroraino iristeko egin behar duen ibilbide luzean, ibaien elkartze prozesua gauzatu ahala sarea murriztu egiten da eta irauten duten ibai gutxiak nagusi eta jariotsu bilakatzen dira.

Ibaiak hizpide izaten ditugunean, kezka eta eztabaidarik arruntenak garapen industrial eta ekonomikoaren ondorioz sortu diren eta egun ere sortzen diren arazoak izaten dira, hala nola, kutsadura kimiko eta kontaminazio erradioaktiboaren aurkako prebentzioa, ibaien erosioari aurre egitea, lurzoruaren higaduraren aurkako neurriak, ur zikinen eta hondakinen araztegiak, eraikitako urtegien eragina, kanpotik ekarritako espezie inbaditzaileen eragin eta ondorioak, uholde arriskuen prebentzioak, etab.

Anitzetan, ordea, ibaien kokapen zehatzaren eta dagokion izenaren ingurukoak izaten dira sortzen zaizkigun lehenbiziko arazoak. Beste batzuetan, euskaraz ari garela, izena ezaguna baldin bazaigu ere, ez dugu jakiten nola idatzi, ahoskatu edota erabili behar den. Hutsune horiek dira, besteak beste, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak, berari dagokion zereginari ekinez, izendegi honekin bete nahi izan zituenak.

Liburu honen Sarreran aitortzen den bezala, ez da lan erraza izan aztertu diren Euskal Herriko hidrografia nagusiaren 414 ibaien izenak identifikatzea eta horien gutzien erabilera egokia finkatzea. Zer dela eta? Agiri zaharrak arakatzean konturatzen gara ibai garrantzitsu batzuk salbu, gainerako gehienek ez dutela mendeetan zehar izen propiorik izan. Ia beti tokian tokiko izen generikoen bitartez aipatu izan dira, euskarazko *ibai, uraundi, erreka, uhaitz, ugalde, lats...* edota gaztelaniazko  *río, río principal, río caudal, agua principal, regata, arroyo...* gisako generikoez, hain zuzen ere. Hortaz, gaur egun erabiltzen direnak nahiko izendapen berriak dira. Batzuetan sorburuaren toki izena hartu izan da erreferentziatzat, beste batzuetan, bere ibilbide linealean zehar katzen dituzten lekuetako toponimoren batena, lekuan lekua normaletan eta, honen ondorioz, egiaztatzen ahal da zenbaitetan ibai bati hiruzpalau izen ematen zaizkiola. Ustez tradizio luzeko izen batzuk ez dira hain aspaldikoak, gehienez ere XIX. edo XX. mendeaz geroztik bataiatuak izan baitira, arrazoi desberdinak direla medio, hala nola, une jakin batean historialari nahiz geografo ikertzaile batek jarritako izendapenez, edo mi-

litarrek, administrazioetako arduradunek edota bestelako erakunderen bateko teknikariek beren lan kartografiko modernoetan islatutakoez.

Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak paratutako lan honi, Osoko bilkuraren onespenearekin batera, arau izaera eman zitzaion. Horren ondorioz, Akademiaren 166. araua da. Euskaltzaindiak ohi duen bezala, araua onartu ondotik, bere webgunearen bidez ezagutzera eman zen. Hala ere, gai honek erabilera praktikoan duen interesa kontuan izanik, esate baterako, irakaskuntzan, argitalpenetan, esatarien lanetan, hedabideetan, administrazioen zereginetan eta bestelako alorretan, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak erakundearen toponimia lanak gizarteratzeko sortu zuen *Izenak bilduma* honetako liburuki berezi batean argitaratzea erabaki zuen. Helburu hori modurik praktikoenean erdietsi ahal izateko, Euskal Herriko hiru hizkuntza ofizialetan, hurrenez hurren, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez eman dira testuak, zerrendak eta mapak.

Eskerrak, 2008tik 2011ra bitartean, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordearen bileretan lan hau aitzina ateratzen ahalegindu ziren partaideei eta prozesu horretan Batzordearen aholkatze lanetan aritu ziren guztiei. Esker bereziak Patxi Galé Onomastika batzordeko kideari, bera izan baitzen materialen prestaketan eta lanaren diseinuan gidaritza hartu zuena, bai eta ibaien kokapenerako mapa eskematikoak irudikatu zituena ere. Esker mila, azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiari, lan hau argitaratzeko erakutsi izan duen interesarekin batera, emandako babesagatik.

**E**uskal Herriko banaketa administratiboari dagozkion zenbait leku-izen nagusi arautu ondoren<sup>1</sup>, beste entitate geografiko batzuei ere heldu nahi izan die Euskaltzaindiak oraingoan. Eta hautu hau ez da justifikaziorik gabeko apeta baten ondorio. Zenbait erabiltzaile estrategikorengandik benetako premia dagoela ikusi eta eskari horri erantzun nahirik ekin zaio leku-izenen arautze lan berri honi. Irakasleek, argialetxeek, mapa-egileek, esatariek, kazetariak, idazleek... maiz erabili behar izaten dituzte izen geografikoak eta bakoitzak bere aldetik eta bere moldean idatzi edo esaten ditu hedabideetan eta argitalpenetan. Euskara jaso jadanik gizarteko maila eta zoko guztietara heldu da eta erabiltzaile nahiz euskarri berri horiei erabilera zuzenaren aukera eta norabidea adierazi behar die Euskaltzaindiak. Arau hau Euskal Herriko hidrografia nagusiari dagokio eta horregatik ibai nagusien euskarazko izenak eta erabilera egokia finkatu nahi izan dira, hots, ibai bakoitza identifikatzeko zein izen erabili behar den eta euskaraz nolako erabilera behar duen.

## Hidronimia

Lehen eginbidea, beraz, hautespen lana izan da. Zein dira Euskal Herriko ibai nagusiak eta zein dira ibai txikiak? Ohikoan inor ez da ausartzen bereizketa hau parametro objektibo zehatzetan egiten eta herrialde bakoitzaren ikuspuntu orokorretik begiratuta egin ohi da aukeraketa hori. Izan ere, ibai batzuk eskala handiko mapetan beti ageri ohi dira eta beste batzuen errepresentazio eta izendapena, ordea, bakarrik eskala zehatzetako kartografian. Arauaren justifikazioaz, gorago aipatu dugun eskaria izan da, hain zuzen, hautespen hori egitean buruan izan dugun irizpidea. Horregatik, Euskal Herriko mapa handietan agertu ohi diren ibaien izenak dira arau honetan finkatu nahi izan direnak. Gainerakoak, nola edo hala, “mikrotoponimo”tzat hartu eta aurrerago aztertzeke gelditu dira.

Hala eta guztiz ere, zenbaitentzat arau honetan ageri diren 414 ibai horietako batzuk garrantzi aldetik eztabaidagarriak izan daitezke, ez direlako hain ibai nagusitzat hartzen. Irizpide objektibo zehatzik ez dagoenez gero zein diren nagusienak eta zein ez erabakitzeko, erabiltzailearen beharrak kontuan hartuz, zerrenda murriztea baino egokiago iruditu zaigu luzatzea. Espero dugu horretan igarri izana eta, erabiltzaileen eskariari baliozko erantzun egokia ematen asmatu izana.

<sup>1</sup> Izaera administratiboa duten Euskal Herriko leku izenei buruz, honako arau hauek eman ditu orain arte Euskaltzaindiak:

45. araua: *Gure egitura politiko batzuen euskal izenez* (1995); 57. araua: *Euskal herrialdeen, herritarren eta euskalkien izenak* (1996); 92. eta 99. arauak: *Zuberoako izendegia* (1998 eta 1999); 108. araua: *Lapurdiko izendegia* (2000); 122, 128 eta 133. arauak: *Nafarroa Behereko izendegia I, II eta III* (2001-2002, 2003, 2003); 139. araua: *Euskal Herria izena* (2004); 140. araua: *Gipuzkoako izendegia* (2004); 145. araua: *Bizkaiko izendegia* (2005); 150. araua: *Arabako izendegia* (2006); 155. araua: *Nafarroako izendegia* (2007-2009).

Arautu beharreko ibaien zerrenda osatutakoan, ibai horiek urteetan zehar izan dituzten izenak aztertzeari ekin zitzaion, baita gaur egun erabiltzen direnei ere. Bi hauek dira, oro har, ikerketa toponimikoaren oinarriak: batek izenak izan duen tradizioaren berri ematen digu eta besteak gaur egungo praxiarena. Datu mota bakoitzari dagokion garrantzia eta neurria eman behar izaten zaio arautze lan honetan.

Aztergai dugun entitate geografikoaren izaeraren berezitasunez zer edo zer esatea ez da alferrikakoa izango. Ibai bat ez da etxe bat edo tontor bat bezalako entitate geografikoa. Azken hauek kokapen zehatz eta puntukaria dute –koordinatu zehatz batzuekin adieraz litekeena– edo, bestela esanda, “toki zehatz batean daude”. Ibaiak, aldiz, izaera lineala dute eta leku asko zeharkatzen dituzte. Horren lehen ondorioa da, ibilbidean zehar izendapen ugari edukitzea bata bestearen ondoren: zeharkatzen dituen dermio edo herrietan identifikazioa modu desberdinean egitea, alegia. Kasu hauetan, mapa-egile eta geografoen tradizioa erabilgarriagoa izan zaigu herri erabilera baino, izendapen *jatorrak* baino gehiago *konbentzionalak* direla jakinik ere.

### Hidronimiaren ezaugarri bereziak

Beste arazo bat izaten da –eta horrek egiten du hidronimia berezi– maiz, herri batetik pasatzen den ibaiak bertan izen berezirik ez izatea. Oso ohikoa da, adibidez, herri zehatz bateko dokumentazioan “río caudal”, “río principal”, “agua principal”, “errekaundi”, “uhaitza”, “uhaitzandi”, “uraundi”, “ugalde” edo era horretako izendapenen bidez identifikatzea. Eta ulertzekoa da. Herri horretatik ibai bakarra pasatzen bada, hura aipatzerakoan bertakoek ez dute izen berezirik behar izan. Honelakoetan, herri erabilera baino baliagarriagoak izan zaizkigu mapa eta hiztegi geografiko zaharretan ageri diren datuak. Hala ere, beste soluziorik aurkitu ez baldin badugu, esapide generiko hauetako batzuk berezko izentzat onartu behar izan ditugu: *Arriugran*, *Errekagaitz*, *Ibaizabal*, *Latsa*, *Riomayor*, *Uhaitza*...

Ibaien elkartzeko puntuak dauden herrietan, ordea, bertakoentzat ere ezinbestekoa da datu bereizgarria gehitzea batzuek ala besteak ari direla aditzera emateko. Horrelakoetan sarri, egiazko hidronimorik ezean, herritarrek ibai bakoitzaren jatorria nola edo hala adierazten duen esapide erreferentziala osatzen dute, urak nondik datozten aditzera ematen duena: *Behorlegiko erreka*, *Oloroeko uhaitza*, *Orokietako erreka*... Honelakoetan *-ko* + *generiko* osagaia noraino den ezinbestekoa, erabiltzaile bakoitzak neurtuko du, izena jarri nahi duen euskarrian nola agertuko den ikusi eta aztertutik. Adibidez, mapa batean errekaen lerroari segituz eta kolore urdineko letrekin errotulatu bada, agian ez da hain beharrezkoa izango generiko osagarri hori jartzea eta aski izan daiteke *Behorlegi*, *Oloroe* eta *Orokiet*a soilik idaztea, inork ez baititu izen bera duten herriekin nahasiko. Arauko zerrendetan, bi soluzioak ikusiko dira, lurralde bakoitzeko erabiltzaileen sentsibilitatearen arabera emanak. Maiz gertatzen da erreferentziazko izenak aipatu nahi den ibaiak baino garrantzi handiagoa izatea, alegia, *Behorlegi* herria, *Behorlegiko erreka* baino “nagusiagoa” edo ezagunagoa bada, komenigarria izango da genitibo + generikoaren erabilera. Kontrara, *Cadagua* ibaiak bere izena jatorria duen Mena haraneko auzoaren izenetik hartu du eta gaur egun ibai auzoa baino ezagunagoa eta “toponimo nagusiagoa” da. Ondorioz, generikorik gabe erabili ohi da mapa eta idatzizko aipamen gehienetan: *Cadagua ibaia* edo *Cadagua* hutsa, eta ez *Río de Cadagua* edo *Cadaguako ibaia*.

Era honetako erreferentziatzko identifikatzaile batzuekin, hala ere, konposaketa lexikalizatuagoak –“hidronimoago” direnak– aurkitu ditugu eta, aukera hori baliaturik, hobetsi egin dira: *Asteasuerreka*, *Elkorriugaldea*, *Loiaerregua*, *Mañarierreka*...

Toponimiaren beste alor batzuekin konparatuz, hidronimian oraindik argiago ikusten da ibaien izendapenetan eragin gehiago izan duela geografoen azterlanak herri xehearen erabilerak baino. Dokumentazioa arakatzean agerian gelditzen da ibai izen askok ez dutela uste dugun bezain tradizio luzerik eta betikotzat jotzen diren izen asko XIX. mendeko geografoek nahiz beranduagoko kartografiek boladan jarritako izendapenak direla.

### Zenbait arazo zehatz

Zenbait ibai desberdinek izen bera edukitzea izan da aurkitu den beste arazo bat. Oso nabaria da, adibidez, *Ega* ibaiaren kasua. Hiru adar ditu ibai horren goialdeak eta iturri zaharretan nahiz herri erabileran, hirurei eman ohi zaie izen horixe bera. Kartografia modernoetan, ordea, balizko nahasteak saiheste aldera, bestelako soluzioak bilatu dira deizio berriak edo oinarri gutxikoak hobetsiz (*Azazeta*, *Berron*, *Igoroin*, *Musitu*...). Tradizioarekin eta erabilerarekin bat etorririk, arauak *Ega* izena onartzen die hirurei, nahasgarria gerta litekeen kasuetarako izen konposatuaren aukera emanez (*Azazetako Ega*, *Musituko Ega*). Antzeko egoera aurkitu da Ipar Euskal Herriko *Errobi* nagusiaren adar diren *Arnegiko Errobi* eta *Urepeleko* (nahiz *Aldudeko*) *Errobi* izenekin. *Azkenik*, *Lauhiraze* izeneko bi ibai ditugu Nafarroa Behereko eta Zuberoako iparraldeko mugetan. Era berean, erabiltzaileak nahasgarria gerta daitekeela ikusi eta bereizteko bide bat eman nahi duenean, *Lauhiraze Biduze* eta *Lauhiraze Ühaitza* izen osatuak erabiltzea dauka, zein ibai nagusiren adar diren aditzera ematen dutenak.

Badira Euskaltzaindiak onartutako zerrenda honetan agian liskar iturri izan daitezkeen erabaki batzuk. Ez dira, ordea, liskarra sortzeko hartutako erabakiak, azken garaiotan hedatu diren oker batzuei nahiz orain arte inork argitu ez dituen nahastei aurre egin eta aterabide egokiak emateko hartuak baizik.

Izen eztabaidagarri hauetako bat Trebiñu konderria zeharkatzen duen ibaiarena da. Kartografia modernoetan eta ahozko lekukotzetan *Ayuda* izena aurkituko dugu ia beti. Kontrara, dokumentazio zaharretik hasi eta XIX. mendera arte, *Ibda*, *Iuda*, *Yuda* eta era horretako aldaerak baino ez dira aurkitzen. Ondorioak atera nahi dituenak *Ayuda* izen bitxia herri etimologia huts bat dela onartu beharko du lehenik, lurralde horretako jatorrizko hizkuntzaren galerarekin eta gaztelaniaren hedatzearekin zuzenean loturik dagokeena. Giro euskaltzaleetan ekoiztu diren kartografia modernoetan, euskarazko soluzio desberdinak bilatu zaizkio kontu honi eta *Iuda*, *Ihuda*, *Uda*... aldaerak aurkitu ahalko dira haietan errotulatuak. Euskaltzaindiak *Ihuda* aldaera hobetsi du, batetik euskal toponimia nagusi den eremu batean dagoelako eta, bestetik, zenbait herri izenetan aplikatu den eta lehendik formulatua zeukan irizpide grafikoari<sup>2</sup> kasu eginik.

<sup>2</sup>“Euskaltzaindiaren agiria zenbait euskal toponimoren ortografiaz”, *Euskera*, XXXIII (1988, 2), 413. or.

Antzeko beste kasu bat dugu Arabako lurretan, aurrekoa baino apur bat hegoalderago. Gaur egungo kartografietan nahiz argitalpen geografikoetan, ohikoa da *Inglares* ibai izena aurkitzea. Dokumentazioa arakatzu gero, ordea, *Yuglares*, *Yugalez* eta honelako aldaerak aurkitzen dira ibai hori izendatzeko. Itxura guztien arabera, bigarren letra  $u > n$  aldatzea, akats tipografiko baten ondorioz helduko zen gugana, betiere XX. mendean. Aldaketa hori saihestuta, Zanbranan bizirik dirau oraindik *Jubalez* izenak, aipatu lekukotza horren oinordeko. Euskaltzaindiak ontzat hartu du izen jatorra berreskuratzen saiatzea,  $g > b$  aldaketan atzera eginez bada ere, eta *Jugalez* era proposatu du ibai horretarako.

*Bidasoa* ibai ezagunaren kasuan ere badago zer argitu. Alde batetik, euskal idazle eta euskal hiztun jatorren artean erabilera aztertu ondoren, *(-a)* oharra gehitu zaio ibai ezagun honen izenari. Horrek ez du ondoriorik mapen errotulazioan nahiz seinaleztapen kontuetan. Bai, ordea, euskarazko erabileran, izenaren amaierako *-a* horrek hitz arrunten mugatzailearen portaera bera izango duelako, hots, *Bidasoa*, *Bidasoak*, *Bidasoaz*, *Bidasoan*, baina *Bidasoko*, *Bidasotik*, *Bidasora*... deklinatu behar delako. Beste alde batetik, ibaiaren ibilbideaz ere komeni da ohar bat egitea. Zenbait argitalpenetan maiz ematen zaio ibai honi behar baino luzera handiagoa, *Baztan* izena duenaren kaltean. Izan ere, bai dokumentazioan bai Nafarroako alde horretako herritarren arteko erabilera arruntean, *Bidasoa* izena Doneztebe herritik behera hartzen du ibaiak, hain zuzen ere, *Baztantzubi* deitutako zubia gainditu ondotik, *Baztan* eta *Ezkurra* izeneko ibaiak elkartzen diren puntutik aurrera.

### Arauren egitura

Ikergaiaren izaera bereziagatik zerrenda hutsak ematea aski ez delakoan, aurkezteko modua ere egokitu nahi izan da arau honetan. Aztertze lanak modu ordenatuan egin ahal izateko, ibaiak bederatzi zerrenda nahiz mapatan sailkatu ziren eta emaitzan ere, zerrenda alfabetikoaz gain, aipatutako sailkapen hori eta zerrenda bakoitzari dagokion mapa eskaintzen dira. Antolatzeke irizpidea geografikoa izan da gehienbat, ahal izan den neurrian arrazoibide politiko-administratiboak alde batera utziz. Honako hauek dira, sailkapeneko zerrendak eta mapak:

- 1.- Bizkaiko kostaldean itsasoratzen diren ibaiak (denera 38).
- 2.- Gipuzkoako kostaldean itsasoratzen direnak (denera 59).
- 3.- Lapurdiko kostaldean itsasoratzen direnak (denera 91).
- 4.- Logroño baino gorago Ebron isurtzen diren ibaiak (denera 40).
- 5.- Logroñotik behera Ebron isurtzen diren ibaiak Egaraino (denera 36).
- 6.- Aragoi ibaiaren goiko arroa Onsellaraino (denera 45).
- 7.- Aragoi ibaiaren beheko arroa, Arga salbu (denera 36).
- 8.- Arga ibaiaren arroa (denera 56).
- 9.- Aragoi ibaia baino beherago Ebron isurtzen direnak (denera 13).

Ibaiak sailkatu eta ordenatzeko, zein zeinen adarra den aztertu behar izan da eta modu horretan bakoitzaren nagusitasuna edo menpekotasuna (hierarkia) ezarri da. Ordenatzerakoan ere, irizpide geografiko huts hauek

aplikatu nahi izan dira eta, horrenbestez, ibaiak mendebaldetik ekialderantz eta goitik behera daude zerrendatuta, alegia, ibai bakoitzaren adarrak goitik behera agertuko dira eta berdin adar horien adarrak, eta abar. Horrek ordenazio kode alfanumeriko bat eman digu eta ordenazio geografiko hori garrantzitsua izanik ere, ez da maiz ohituta gauden parametroetan mugituko.

Horregatik, arautu diren izenok hiru erataraz aurkeztu nahi izan dira:

- Ibaien zerrenda alfabetikoa: izenak ez ezik, erreferentzia bezala arrot nagusia eta mapa zenbakia ere ematen dira. Lehenetsitako izenak letra beltzez ageri dira zerrendan, baina arauan aipatzen diren sinonimo nahiz beste izendapen guztiak ere aurkitzen ahal dira hurrenkera alfabetikoan, letra arruntez, bakoitza bere izendapen nagusira bideratuz.
- Ibaien zerrenda hierarkikoa: aurretik aipatutako kode alfanumerikoaren arabera ordenatuak daude izen guztiak eta, horretaz gain, mapa zenbakia eta arrot nagusiaren izena ere ematen dira. Hala behar denean, onartu diren sinonimoak eta oharrak ere ageri dira.
- Mapa eskematikoak: zerrenda bakoitzeko ibaiak eta berauek kokatzen lagun dezaketen herri nagusiak.





## Ibaien zerrenda alfabetikoa

Izena	Oharrak	Arroa	Mapa
<i>Adour, L'</i>	Ikus <i>Aturri</i>		
<i>Aetzubi</i>		Irati	6
<i>Agauntza</i>		Oria	2
<i>Agirtza</i>	Ikus <i>Galindo</i>		
<i>Aguasalada</i>		Arga	8
<i>Agüera</i>	Sin <sup>3</sup> . <i>Riomayor</i>	Kantauri itsasoa	1
<i>Aiantsoro</i>		Bidasoa	2
<i>Aibar</i>	Ikus <i>Oibar</i>		
<i>Aistora</i> <sup>4</sup>		Ega	5
<i>Aizkolegiko erreka</i>	Ikus <i>Urtzuriko erreka</i>		
<i>Albina</i>	Ikus <i>Bostibaieta</i>		
<i>Aldamara</i>	Sin. <i>La Muga</i>	Aragoi	7
<i>Aldudeko Errobi</i>	Ikus <i>Urepeleko Errobi</i>		
<i>Alegria</i>	Ikus <i>Dulantzi</i>		
<i>Alhama</i>		Ebro	9
<i>Alhorgako erreka</i>		Uhabia	3
<i>Alrevés</i>	Ikus <i>Elortz</i>		
<i>Altube</i>		Nerbioi	1
<i>Altzamia</i>		Arakil	8
<i>Ametzaga</i>		Arakil	8
<i>Amezqueta</i>		Oria	2
<i>Ameztiko erreka</i>		Bidasoa	2
<i>Amizolako erreka</i>		Uhabia	3
<i>Amundarain</i>	Ikus <i>Zaldibierreka</i>		
<i>Añamaza</i>		Ebro	9
<i>Añarbe</i>		Urumea	2
<i>Andiaga</i>		Aragoi	7
<i>Anduña</i>		Irati	6
<i>Anduretako erreka</i>		Kantauri itsasoa	3
<i>Anizpe</i>		Bidasoa	2
<i>Antsolako erreka</i>		Errobi	3
<i>Antzarako erreka</i>		Errobi	3

<sup>3</sup> Honako laburdura hauek erabili dira oharretan: *fr.* 'frantsesezko izena', *gzt.* 'gaztelaniazko izena', *hist.* 'historikoa', *sin.* 'sinonimoa'.

<sup>4</sup> Azentuazio proparoxitonoa eta hasierako hiatoa gauzatzea gomendatzen da: *Aístora*.

Izena	Oharrak	Arroa	Mapa
<i>Aphalagako erreka</i>		Uhabia	3
<i>Aphanize</i>		Ühaitza	3
<i>Aphatarena (-a)</i>		Biduze	3
<i>Aphura</i>		Ühaitza	3
<i>Aragoi</i>	Gazt. <i>Aragón</i>	Ebro	6
<i>Aragón</i>	Ikus <i>Aragoi</i>		
<i>Arakil</i>		Arga	8
<i>Aramaio</i>		Deba	2
<i>Aranandi</i>	Ikus <i>Basajaunberro</i>		
<i>Aranbero</i>		Zidakos	7
<i>Aranea (-a)</i>		Bidasoa	2
<i>Aranea (-a)</i>		Bidasoa	2
<i>Aranerreka</i>		Deba	2
<i>Arangoreneko erreka</i>		Ühaitza	3
<i>Arantzazu</i>		Deba	2
<i>Araotz</i>		Deba	2
<i>Aratzerreka</i>		Urola	2
<i>Araxes</i>	Sin. <i>Errekaundi, Azpirotz</i>	Oria	2
<i>Arberoako erreka</i>		Biduze	3
<i>Arberreka</i>	Ikus <i>Urkulu</i>		
<i>Arbuz</i>		Bidasoa	2
<i>Ardanabia (-a)</i>		Aturri	3
<i>Areta</i>		Irati	6
<i>Arga</i>		Aragoi	8
<i>Argisao</i>		Oria	2
<i>Arhan</i>	Fr. <i>La Joyeuse</i>	Aturri	3
<i>Aritxaga</i>		Aturri	3
<i>Aritzakun</i>		Errobi	3
<i>Arizpildueta</i>		Zidakos	7
<i>Arkil</i>		Ultzama	8
<i>Arlas</i>		Arga	8
<i>Arluxea (-a)</i>		Zidakos	7
<i>Armillos</i>	Ikus <i>Bizkaia (-a)</i>		
<i>Arnauri</i>	Sin. <i>Atxuriko erreka</i>	Nerbioi	1
<i>Arnegiko Errobi</i>		Errobi	3
<i>Arrakas</i>		Irati	6
<i>Arrañosin</i>		Irati	6

<b>Izena</b>	<b>Oharrak</b>	<b>Arroa</b>	<b>Mapa</b>
<i>Arratia</i>		Ibaizabal	1
<i>Arriaran</i>		Oria	2
<i>Arrieta</i>		Zadorra	4
<i>Arriugran</i>		Aturri	3
<i>Arroaerreka</i>		Urola	2
<i>Arrospide</i>	Ikus <i>Lasturerreka</i>		
<i>Arroyo de Pozonegro</i>	Ikus <i>Calera</i>		
<i>Artamakurra (-a)</i>		Arga	8
<i>Artesiaga</i>	Sin. <i>Mizpirako erreka</i>	Bidasoa	2
<i>Artibai</i>	Hist. <i>Ubilla</i>	Kantauri itsasoa	1
<i>Artius</i>		Arakil	8
<i>Artziniega</i>		Cadagua	1
<i>Askartza</i>		Zadorra	4
<i>Asón<sup>5</sup></i>		Kantauri itsasoa	1
<i>Asteasuerreka</i>		Oria	2
<i>Asua (-a)</i>		Ibaizabal	1
<i>Atengaldea (-a)</i>	Sin. <i>San Bartolome</i>	Arakil	8
<i>Aturri</i>	Fr. <i>L'Adour</i>	Kantauri itsasoa	3
<i>Atxurdin</i>	Ikus <i>Undabe</i>		
<i>Atxuriko erreka</i>	Ikus <i>Arnauri</i>		
<i>Auzet</i>		Oloroeko uhaitza	3
<i>Ayega</i>		Cadagua	1
<i>Azpirotz</i>	Ikus <i>Araxes</i>		
<i>Aztapar</i>		Irati	6
<i>Baia</i>	Gazt. <i>Bayas</i>	Ebro	4
<i>Ballonti</i>	Sin. <i>Capetillo</i>	Ibaizabal	1
<i>Balora</i>	Ikus <i>Ugarka</i>		
<i>Baluso</i>	Ikus <i>Ugarka</i>		
<i>Barandalla</i>		Ega	5
<i>Barbadun</i>		Kantauri itsasoa	1
<i>Barranco de Limas</i>		Ebro	9
<i>Barranco de Sierras</i>		Arga	8
<i>Barranco de Tudela</i>		Ebro	9
<i>Barranco del Calvario</i>		Ebro	9

<sup>5</sup> Euskal Herritik kanpo.

Izena	Oharrak	Arroa	Mapa
<i>Barranco del Soto</i>		Ebro	4
<i>Barrancogrande</i>		Ebro	9
<i>Barrancosalado</i>		Ega	5
<i>Barrancosalado</i>		Arga	8
<i>Barrundia</i>		Zadorra	4
<i>Basaburua (-a)</i>		Arakil	8
<i>Basajaunberro</i>	Sin. <i>Aranandi</i>	Irati	6
<i>Basakaitz</i>		Bidasoa	2
<i>Batan</i>		Zadorra	4
<i>Bayas</i>	Ikus <b>Baia</b>		
<i>Baztan</i> <sup>6</sup>		Bidasoa	2
<i>Baztango erreka</i>		Errobi	3
<i>Beartzun</i>		Bidasoa	2
<i>Bedaran</i>		Urumea	2
<i>Beherobiko erreka</i>		Errobi	3
<i>Behorlegiko erreka</i>		Errobi	3
<i>Belabarze</i>		Ezka	6
<i>Belagua</i>		Ezka	6
<i>Bergantza</i>		Nerbioi	1
<i>Besaingo erreka</i>		Uhabia	3
<i>Beskos</i>		Zidakos	7
<i>Bidasoa (-a)</i> <sup>7</sup>		Kantauri itsasoa	2
<i>Biduze</i>	Sin. <i>Lapiotz</i> Donaixtitik gora <i>Urbeltzeta</i>	Aturri	3
<i>Biniés</i>		Ezka	6
<i>Bizkaia (-a)</i>	Sin. <i>Armillos</i>	Aragoi	7
<i>Bostibaieta</i>	Sin. <i>Albina</i>	Zadorra	4
<i>Buempajera</i>		Ebro	5
<i>Butroe</i>	Gazt. <i>Butrón</i>	Kantauri itsasoa	1
<i>Butrón</i>	Ikus <b>Butroe</b>		
<i>Cadagua</i>	Hist. <i>Salcedón</i>	Ibaizabal	1
<i>Cadreita</i>		Aragoi	7
<i>Calera</i>	Goialdean <i>Arroyo de Pozonegro</i>	Asón	1

<sup>6</sup> Ikus *Bidasoa* ibaiaz egindako oharra.

<sup>7</sup> Izen hori Donezteben, *Ezkurra* eta *Baztan* ibaiak elkartzen diren puntutik behera hartzen du.

Izena	Oharrak	Arroa	Mapa
<b>Callejo</b>		Asón	1
<i>Calvario, Barranco del</i>	Ikus <b>Barranco del Calvario</b>		
<i>Capetillo</i>	Ikus <b>Ballonti</b>		
<b>Cerrécano</b>		Irati	6
<b>Conchaval</b>		Ebro	4
<b>Congostos</b>		Ebro	9
<b>Cuadro</b>		Asón	1
<b>Deba</b>		Kantauri itsasoa	2
<b>Doña Toda</b>		Ega	5
<b>Donamartíneko erreka</b>		Biduze	3
<b>Dorrondiaga</b>		Aragoi	7
<b>Duiderra (-a)</b>		Arga	8
<b>Dulantzi</b>	Gazt. <i>Alegría</i>	Zadorra	4
<b>Ebro</b>		Mediterraneo itsasoa	4
<b>Ega</b>		Ebro	5
<b>Ega<sup>8</sup></b>		Ega	5
<b>Ega<sup>9</sup></b>		Ega	5
<b>Ego</b>		Deba	2
<b>Egurgi</b>	Aezkoan <i>Egurgio</i>	Irati	6
<i>Egurgio</i>	Ikus <b>Egurgi</b>		
<b>Egúrzanos</b>		Irati	6
<b>Eiherattoko erreka</b>		Errobi	3
<b>El Raso</b>		Arga	8
<b>El Riaz</b>	Sin. <i>Valmayor</i>	Zidakos	7
<b>El Saso</b>		Arga	8
<b>Elama</b>		Urumea	2
<b>Elduain</b>	Berastegiko zelaian <i>Zelaia</i>	Oria	2
<b>Elkorriugaldea (-a)</b>	Sin. <i>Txortxor</i>	Arakil	8
<b>Elortz</b>	Sin. <i>Alrevés</i>	Arga	8
<b>Eltzarrain</b>	Sin. <i>Mediano</i>	Ultzama	8
<b>Endaraerreka</b>		Bidasoa	2
<b>Erasote</b>		Oria	2
<b>Erdizaga</b>	Sin. <i>Urtzel</i>	Arga	8

<sup>8</sup> Lagrandik datorren *Ega* nagusitik bereizi behar denean, *Musituko Ega* erabil daiteke.

<sup>9</sup> *Ega* izeneko adar nagusiagoetatik bereizi behar denean, *Azazetako Ega* erabil daiteke.

<b>Izena</b>	<b>Oharrak</b>	<b>Arroa</b>	<b>Mapa</b>
<i>Erragotz</i>		Arga	8
<i>Errekabeltx</i>		Ultzama	8
<i>Errekabion</i>		Ega	5
<i>Errekagaitz</i>		Irati	6
<i>Errekaundi</i>	Ikus <i>Araxes</i> eta <i>Urumea</i>		
<i>Erreniega</i>		Arga	8
<i>Errezil</i>		Urola	2
<i>Erro</i>		Irati	6
<i>Errobi</i>	Fr. <i>La Nive</i>	Aturri	3
<i>Erroizu</i>	Sin. <i>Mintxate</i>	Ezka	6
<i>Eskargaitz</i>		Irati	6
<i>Esparteta</i>		Zidakos	7
<i>Espesuras</i>		Ega	5
<i>Estepona</i>		Kantauri itsasoa	1
<i>Etxarro</i>		Arga	8
<i>Ezka</i>		Aragoi	6
<i>Ezkati</i>	Ikus <i>Ugarane</i>		
<i>Ezkurra</i>		Bidasoa	2
<i>Ezpelura</i> <sup>10</sup>		Bidasoa	2
<i>Eztanda</i>		Oria	2
<i>Ezterengibeleko erreka</i>		Errobi	3
<i>Fábrica, La</i>	Ikus <i>Las Huertas</i>		
<i>Galardiko erreka</i>		Urdazuri	3
<i>Galbarra</i>		Ega	5
<i>Galijo</i>		Ebro	4
<i>Galindo</i>	Goialdean <i>Agirtza</i>	Ibaizabal	1
<i>Gándara</i> <sup>11</sup>		Asón	1
<i>Gardalar</i>		Ezka	6
<i>Gardelain</i>		Aragoi	7
<i>Garganta, La</i>	Ikus <i>La Garganta</i>		
<i>Garona, La</i>	Ikus <i>La Garona</i>		
<i>Gave d'Oloron</i>	Ikus <i>Oloroeko uhaitza (-a)</i>		
<i>Gave de Pau</i>	Ikus <i>Paeko uhaitza (-a)</i>		

<sup>10</sup> Urrozko zentraletik behera hartzen du izen hau.

<sup>11</sup> Euskal Herritik kanpo.

Izena	Oharrak	Arroa	Mapa
<i>Gaves Réumis, Les</i>	Ikus <i>Uhaitz Elkartuak (-ak)</i>		
<b>Gesalea (-a)</b>		Ühaitza	3
<b>Gibelegieta</b>		Oloroeko uhaitza	3
<b>Gobela</b>		Ibaizabal	1
<b>Goiolako</b>		Kantauri itsasoa	1
<b>Granadaerreka</b>		Urola	2
<b>Gulia</b>	Gazt. <i>Gulina</i>	Arakil	8
<i>Gulina</i>	Ikus <b>Gulia</b>		
<b>Gurpegiko erreka</b>		Irati	6
<b>Hairako erreka</b>		Errobi	3
<b>Haltzabaltzako erreka</b>		Errobi	3
<b>Hanibarreko erreka</b>		Urdazuri	3
<b>Harpeko erreka</b>		Errobi	3
<b>Harrietako erreka</b>		Errobi	3
<b>Hazketako erreka</b>	Sin. <i>Mendilahartsuerreka</i>	Arhan	3
<b>Herrera</b>		Ebro	4
<b>Herreñas</b>		Cadagua	1
<i>Hiruetako erreka</i>	Ikus <b>Lizarietako erreka</b>		
<b>Horcajo</b>		Ebro	5
<i>Hoyuela, La</i>	Ikus <b>La Hoyuela</b>		
<b>Hoztako ura (-a)</b>		Biduze	3
<b>Huecha</b>		Ebro	9
<i>Huertas, Las</i>	Ikus <b>Las Huertas</b>		
<b>Ibaieder</b>		Urola	2
<b>Ibaizabal</b>		Kantauri itsasoa	1
<b>Ibaizabal</b> <sup>12</sup>	Hist. <i>Ibalzibar</i>	Cadagua	1
<i>Ibalzibar</i>	Ikus <b>Ibaizabal (Cadagua)</b>		
<b>Ibarbaltz</b>	Sin. <i>Urkiolaerreka</i>	Zadorra	4
<b>Ibardingo erreka</b>		Urdazuri	3
<b>Ibia (-a)</b> <sup>13</sup>		Zadorra	4
<i>Idas</i>	Ikus <b>Izoria</b>		
<b>Idiazabalerreka</b>		Arga	8
<b>Iholdiko erreka</b>	Fr. <i>La Joyeuse</i>	Biduze	3
<b>Ihuda</b>		Zadorra	4

<sup>12</sup> Azentuazio proparoxitonoa du: *Ibáizabal*.

<sup>13</sup> Azentuazio proparoxitonoa du: *Íbia*.



<b>Izena</b>	<b>Oharrak</b>	<b>Arroa</b>	<b>Mapa</b>
<i>Ilhumatzeko erreka</i>		Errobi	3
<i>Iñiarbegi</i>		Bidasoa	2
<i>Inarotz</i>	Ikus <i>Ubagua</i>		
<i>Inbuluzketako erreka</i>		Arga	8
<i>Indusi</i>	Goialdean <i>Pozonagusia (-a)</i>	Ibaizabal	1
<i>Intzolako erreka</i>		Urdazuri	3
<i>Irantzu</i>		Ega	5
<i>Irati</i>		Aragoi	6
<i>Iraue</i>	Sin. <i>Oianbarren</i>	Ultzama	8
<i>Iregi</i>		Arakil	8
<i>Iturrieder</i>	Ikus <i>Negusolako erreka</i>		
<i>Iturzabaleta</i>		Zadorra	4
<i>Itzalde</i>		Cadagua	1
<i>Ixakahandia (-a)</i>		Kantauri itsasoa	3
<i>Izki</i>		Ega	5
<i>Izoria</i>	Goialdean <i>Idas</i>	Nerbioi	1
<i>Izpaxuri</i>		Biduze	3
<i>Izpiña</i>		Irati	6
<i>Jeloseko erreka</i>		Biduze	3
<i>Joos</i>		Oloroeko uhaitza	3
<i>Joyeuse, La</i>	Ikus <i>Arhan</i> eta <i>Iholdiko erreka</i>		
<i>Juanezkerro</i>		Zidakos	7
<i>Jugalez<sup>14</sup></i>		Ebro	4
<i>Juslapeña</i>	Ikus <i>Urtxikia (-a)</i>		
<i>Kandaraitz</i>		Arga	8
<i>Karrantza</i>		Asón	1
<i>Kolitzza</i>		Kantauri itsasoa	1
<i>L'Adour</i>	Ikus <i>Aturri</i>		
<i>La Fábrica</i>	Ikus <i>Las Huertas</i>		
<i>La Garganta</i>		Arga	8
<i>La Garona</i>		Ezka	6
<i>La Hoyuela</i>		Ebro	5
<i>La Joyeuse</i>	Ikus <i>Arhan</i> eta <i>Iholdiko erreka</i>		
<i>La Mouline</i>		Errobi	3

<sup>14</sup> Hasierako kontsonantea <y> ahoskatzea gomendatzen da.

Izena	Oharrak	Arroa	Mapa
<i>La Muga</i>	Ikus <i>Aldamara</i>		
<b>La Nava</b>		Arga	8
<i>La Nive</i>	Ikus <i>Errobi</i>		
<i>La Nivelle</i>	Ikus <i>Urdazuri</i>		
<b>La Sierra</b>		Irati	6
<b>Labako</b>		Zidakos	7
<b>Lafaure</b>		Ühaitza	3
<b>Lagardoiko erreka</b>		Ühaitza	3
<b>Laka</b>		Errobi	3
<b>Lakumulatu</b>		Aragoi	7
<b>Laminosineko erreka</b>		Biduze	3
<b>Landarregia (-a)</b>		Ebro	9
<i>Lapiotz</i>	Ikus <i>Biduze</i>		
<b>Lapixuri</b>	Sin. <i>Xarakaria (-a)</i>	Urdazuri	3
<b>Larhunttikiko erreka</b>		Urdazuri	3
<b>Larraineko ühaitza (-a)</b>		Ühaitza	3
<b>Larraize</b>		Irati	6
<b>Larraun</b>		Irati	6
<b>Larraun</b>		Arakil	8
<b>Las Huertas</b>	Sin. <i>La Fábrica</i>	Zadorra	4
<b>Las Navas</b>		Aragoi	7
<i>Lasao</i>	Ikus <i>Lasturerreka</i>		
<i>Lasserre</i>	Ikus <i>Zerrako erreka</i>		
<b>Lasturerreka</b>	Goialdean <i>Arrospide</i> edo <i>Lasao</i>	Deba	2
<b>Latsa</b>		Bidasoa	2
<b>Latsa</b>		Errobi	3
<b>Latsea (-a)</b>		Errobi	3
<b>Latseko erreka</b>		Errobi	3
<b>Latsübi</b>		Ühaitza	3
<b>Lauhiraze<sup>15</sup></b>		Ühaitza	3
<b>Lauhiraze<sup>16</sup></b>		Biduze	3
<b>Lauribar</b>		Errobi	3

<sup>15</sup> Zohota, Arboti, Burgue eta Erangotik pasatu eta *Biduze* nagusiaren adarra den *Lauhiraze* ibaitik bereizi behar denean, *Lauhiraze Ühaitza (-a)* erabil daiteke.

<sup>16</sup> Olhaibi, Ithorrotte eta Ozarainetik pasatu eta *Ühaitza* nagusiaren adarra den *Lauhiraze* ibaitik bereizi behar denean, *Lauhiraze Biduze* erabil daiteke.

<b>Izena</b>	<b>Oharrak</b>	<b>Arroa</b>	<b>Mapa</b>
<i>Le Saison</i>	Ikus <i>Ühaitza (-a)</i>		
<b>Lea</b>		Kantauri itsasoa	1
<b>Legartza</b>		Irati	6
<b>Leitzaran</b>		Oria	2
<b>Lerbeltz</b>		Aragoi	7
<i>Les Gaves Réunis</i>	Ikus <i>Uhaitz Elkartuak (-ak)</i>		
<b>Leziza</b>		Arakil	8
<b>Lezkairu</b>		Aragoi	7
<b>Lihuri</b>		Biduze	3
<i>Limas, Barranco de</i>	Ikus <i>Barranco de Limas</i>		
<b>Linares</b>		Ebro	5
<b>Lizarietako erreka</b>	Sin. <i>Hiruetako erreka</i>	Urdazuri	3
<b>Lizuniagako erreka</b>		Urdazuri	3
<b>Loiaerregua (-a)</b>		Aragoi	7
<b>Longar</b>		Ebro	5
<b>Los Ríos</b>		Ega	5
<b>Lurgorrieta</b>		Urdazuri	3
<b>Mairaga</b>		Zidakos	7
<b>Mañarierreka</b>	Goialdean <i>Urkiioleta</i>	Ibaizabal	1
<b>Marin</b>		Bidasoa	2
<b>Maringortea (-a)</b>		Arga	8
<b>Marmaroko erreka</b>		Arhan	3
<i>Mediano</i>	Ikus <i>Eltzarrain</i>		
<i>Mendilahartsuerreka</i>	Ikus <i>Hazketako erreka</i>		
<b>Meorbeburuko erreka</b>		Bidasoa	2
<i>Mintxate</i>	Ikus <i>Erroizu</i>		
<i>Mizpirako erreka</i>	Ikus <i>Artesiaga</i>		
<b>Molinar</b>		Aragoi	7
<b>Molino</b>		Zadorra	4
<b>Mostrakas</b>		Aragoi	7
<i>Mouline, La</i>	Ikus <i>La Mouline</i>		
<i>Muga, La</i>	Ikus <i>Aldamara</i>		
<i>Nava, La</i>	Ikus <i>La Nava</i>		
<i>Navas, Las</i>	Ikus <i>Las Navas</i>		
<b>Negusolako erreka</b>	Sin. <i>Iturrieder. Fr. Trois Fontaines</i>	Urdazuri	3
<b>Nekea</b>		Arga	8
<b>Nerbioi</b>	Gazt. <i>Nerviön</i>	Ibaizabal	1

<b>Izena</b>	<b>Oharrak</b>	<b>Arroa</b>	<b>Mapa</b>
<i>Nerviön</i>	Ikus <i>Nerbioi</i>		
<i>Nive, La</i>	Ikus <i>Errobi</i>		
<i>Nivelle, La</i>	Ikus <i>Urdazuri</i>		
<b>Obantzea (-a)</b>		Arga	8
<b>Odrón</b>		Ebro	5
<b>Oiabar</b>		Ega	5
<i>Oianbarren</i>	Ikus <i>Iraue</i>		
<b>Oiartzun</b>		Kantauri itsasoa	2
<b>Oibar</b>	Gazt. <i>Aibar</i>	Aragoi	7
<b>Oka</b>		Kantauri itsasoa	1
<i>Olabarrieta</i>	Ikus <i>Olaran</i>		
<b>Olaran</b>	Sin. <i>Olabarrieta</i>	Deba	2
<b>Oletaerreaka</b>		Zadorra	4
<b>Olhadoko erreka</b>		Ühaitza	3
<b>Olhadüübiko erreka</b>		Ühaitza	3
<b>Oloroeko uhaitza (-a)</b>	Fr. <i>Gave d'Oloron</i>	Aturri	3
<i>Oloron, Gave d'</i>	Ikus <b>Oloroeko uhaitza (-a)</b>		
<b>Omaerreka</b>		Kantauri itsasoa	1
<b>Omecillo</b>		Ebro	4
<b>Onin</b>		Bidasoa	2
<b>Onsella</b>		Aragoi	6
<b>Oria</b>		Kantauri itsasoa	2
<b>Orokietako erreka</b>		Arakil	8
<b>Osegarpe</b>		Zadorra	4
<b>Otrollos</b>		Zidakos	7
<i>Pau, Gave de</i>	Ikus <b>Paueko uhaitza (-a)</b>		
<b>Paueko uhaitza (-a)</b>	Fr. <i>Gave de Pau</i>	Aturri	3
<b>Perezuelas</b>		Ebro	5
<b>Portuko erreka</b>		Urdazuri	3
<b>Potxe</b>		Irati	6
<b>Pozo del Pastor</b>		Zidakos	7
<i>Pozonagusia (-a)</i>	Ikus <b>Indusi</b>		
<i>Pozonegro, Arroyo de</i>	Ikus <b>Calera</b>		
<b>Purón</b>		Ebro	4
<b>Queiles</b>		Ebro	9
<i>Raso, El</i>	Ikus <b>El Raso</b>		
<b>Regata del Valle</b>		Ebro	4

<b>Izena</b>	<b>Oharrak</b>	<b>Arroa</b>	<b>Mapa</b>
<i>Réumis, Les Gaves</i>	Ikus <i>Uhaitz Elkartuak (-ak)</i>		
<i>Riaz, El</i>	Ikus <i>El Riaz</i>		
<b>Riobueno</b>		Ega	5
<b>Riomayor</b>		Ebro	4
<b>Riomayor</b>		Ega	5
<i>Riomayor</i>	Ikus <i>Agüera</i>		
<b>Riorrojo</b>		Zadorra	4
<i>Ríos, Los</i>	Ikus <i>Los Ríos</i>		
<b>Riosalado</b>		Ega	5
<b>Riosalado</b>		Arga	8
<b>Rioseco</b>		Ebro	4
<b>Robo</b>		Arga	8
<b>Rosaria</b>		Ega	5
<b>Rubialgas</b>		Ebro	4
<b>Sabando</b>		Ega	5
<b>Sadar</b>		Arga	8
<i>Saison, Le</i>	Ikus <i>Ühaitza (-a)</i>		
<i>Salazar</i>	Ikus <i>Zaraitzu</i>		
<i>Salcedón</i>	Ikus <i>Cadagua</i>		
<i>San Bartolome</i>	Ikus <i>Ateungaldea (-a)</i>		
<b>San Gil</b>		Arga	8
<b>San Ginés</b>		Ebro	4
<b>San Jorge</b>		Ebro	9
<b>San Pedro</b>		Ega	5
<b>San Pedro Melgar</b>		Ebro	5
<b>San Tomas</b>	Gazt. <i>Santo Tomás</i>	Zadorra	4
<b>Sanbil</b>		Arga	8
<b>Santa Engracia</b>		Ebro	9
<b>Santa Engrazia</b>		Zadorra	4
<b>Santa Graziko ühaitza (-a)</b>		Ühaitza	3
<b>Santiagoerreka</b>		Oria	2
<i>Santo Tomás</i>	Ikus <i>San Tomas</i>		
<b>Santsoain</b>		Zidakos	7
<b>Saragoria</b>		Arga	8
<b>Saratsu</b>		Zadorra	4
<b>Saso</b>		Zidakos	7
<i>Saso, El</i>	Ikus <i>El Saso</i>		

<b>Izena</b>	<b>Oharrak</b>	<b>Arroa</b>	<b>Mapa</b>
<b>Sastoia</b>		Irati	6
<b>Senekoitz</b>		Errobi	3
Sierra, La	Ikus <b>La Sierra</b>		
Sierras, Barranco de	Ikus <b>Barranco de Sierras</b>		
<b>Sorginzulo</b>		Arakil	8
Soto, Barranco del	Ikus <b>Barranco del Soto</b>		
<b>Telleriako erreka</b>		Urdazuri	3
<b>Torrondo</b>		Ega	5
Trois Fontaines	Ikus <b>Negusolako erreka</b>		
Tudela, Barranco de	Ikus <b>Barranco de Tudela</b>		
<b>Tumecillo</b>		Ebro	4
<b>Txangoa (-a)</b>		Irati	6
<b>Tximista</b>		Bidasoa	2
Txortxor	Ikus <b>Elkorriugaldea (-a)</b>		
Txulapain	Ikus <b>Urtxikia (-a)</b>		
<b>Ubagua</b>	Sin. <i>Inarotz</i>	Arga	8
Ubilla	Ikus <b>Artibai</b>		
<b>Udarbe</b>		Arakil	8
<b>Ugañain</b>		Ezka	6
<b>Ugarana (-a)</b>		Urdazuri	3
<b>Ugarane</b>	Sin. <i>Ezkati</i>	Ultzama	8
<b>Ugarka</b>	Sin. <i>Balora, Baluso</i>	Aragoi	7
<b>Ugarra</b>		Irati	6
<b>Uhabia</b>		Kantauri itsasoa	3
<b>Uhaitz Elkartuak (-ak)</b>	Fr. <i>Les Gaves Réunis</i>	Aturri	3
<b>Ūhaitza (-a)</b>	Fr. <i>Le Saison</i>	Oloroeko uhaitza	3
<b>Uhane</b>		Biduze	3
<b>Uharka</b>		Urdazuri	3
<b>Uiarra</b>		Ega	5
<b>Ultzama</b>		Arga	8
<b>Undabe</b>	Sin. <i>Atxurdin</i>	Zadorra	4
<b>Uneba</b>		Ebro	4
<b>Untsin</b>		Kantauri itsasoa	3
<b>Untziti</b>		Arga	8
<b>Urbaltza (-a)</b>		Ega	5
Urbeltzeta	Ikus <b>Biduze</b>		
<b>Urdainzko erreka</b>		Errobi	3

<b>Izena</b>	<b>Oharrak</b>	<b>Arroa</b>	<b>Mapa</b>
<i>Urdazuri</i>	Fr. <i>La Nivelles</i>	Kantauri itsasoa	3
<i>Urđiñola</i>		Urumea	2
<i>Urederra (-a)</i>		Ega	5
<i>Urepel</i>		Ultzama	8
<i>Urepeleko Errobi</i>	Sin. <i>Aldudeko Errobi</i>	Errobi	3
<i>Urkiolaerreka</i>	Ikus <b>Ibarbaltz</b>		
<i>Urkiioleta</i>	Ikus <b>Mañarierreka</b>		
<i>Urkulu</i>	Goialdean <i>Arberreka</i>	Deba	2
<i>Urola</i>		Kantauri itsasoa	2
<i>Urralegi</i>		Ezka	6
<i>Urretako erreka</i>		Aragoi	7
<i>Urritzate</i>		Errobi	3
<i>Urrobi</i>		Irati	6
<i>Urtsuaran</i>		Oria	2
<i>Urtxikia (-a)</i>	Sin. <i>Txulapain / Juslapena</i>	Arga	8
<i>Urtxuria (-a)</i>		Irati	6
<i>Urtzel</i>	Ikus <b>Erdizaga</b>		
<i>Urtzuriko erreka</i>	Sin. <i>Aizkolegiko erreka</i>	Bidasoa	2
<i>Urumea</i>	Goizuetan <i>Errekaundi</i>	Kantauri itsasoa	2
<i>Usiain</i>		Irati	6
<i>Uztarroze</i>		Ezka	6
<i>Vadillo</i>		Ebro	4
<i>Valdearas</i>		Ebro	5
<i>Valdebarón</i>		Ebro	5
<i>Valdenovillas</i>		Ebro	9
<i>Vallacuera</i>		Zidakos	7
<i>Vallacuera</i>		Arga	8
<i>Valle, Regata del</i>	Ikus <b>Regata del Valle</b>		
<i>Valmayor</i>	Ikus <b>El Riaz</b>		
<i>Valtraviesa</i>		Zidakos	7
<i>Valtriguera</i>		Aragoi	7
<i>Vayalengua</i>		Arga	8
<i>Xabros</i>		Irati	6
<i>Xarakaria (-a)</i>	Ikus <b>Lapitxuri</b>		
<i>Xuringoa</i>		Irati	6
<i>Zadorra</i>		Ebro	4
<i>Zaldaña</i>		Irati	6

Izena	Oharrak	Arroa	Mapa
<i>Zaldazain</i>		Ultzama	8
<i>Zaldibierreka</i>	Goialdean <i>Amundarain</i>	Oria	2
<i>Zalduerreka</i>		Ibaizabal	1
<i>Zalla</i>		Zadorra	4
<i>Zapaiz</i>		Aragoi	7
<i>Zaraitzu</i>	Gazt. <i>Salazar</i>	Irati	6
<i>Zarikieta</i>		Irati	6
<i>Zatoia</i>		Irati	6
<i>Zaubio</i>		Zidakos	7
<i>Zeberiko erreka</i>		Bidasoa	2
<i>Zeberioerreka</i>		Nerbioi	1
<i>Zelaia</i>	Ikus <i>Elduain</i>		
<i>Zelaieta</i>		Ega	5
<i>Zenborrain</i>		Zidakos	7
<i>Zerrako erreka</i>	Fr. <i>Lasserre</i>	Oloroeko uhaitza	3
<i>Zia</i>		Bidasoa	2
<i>Zidakos</i>		Aragoi	7
<i>Zirauntza</i>		Arakil	8
<i>Zirikolazko erreka</i>		Uhabia	3
<i>Zologorri</i>		Ega	5
<i>Zorribentako erreka</i>		Urdazuri	3
<i>Zubialde</i>		Zadorra	4
<i>Zubizabala (-a)</i>		Zadorra	4
<i>Zuhibandia (-a)</i>		Arhan	3
<i>Zumalegi</i>		Ibaizabal	1
<i>Zumarrezta</i>		Urumea	2
<i>Zürkhatsegi</i>		Ühaitza	3





## Ibaien zerrenda hierarkikoak eta mapa eskematikoak

### 1. Bizkaiko kostaldean itsasoratzen diren ibaiak (denera 38)

Hierarkia	Izena	Oharrak	Arroa
A.01	<i>Asón</i> <sup>17</sup>		Kantauri itsasoa
A.01.01	<i>Gándara</i> <sup>18</sup>		Asón
A.01.01.01	<i>Calera</i>	Goialdean <i>Arroyo de Pozonegro</i>	Asón
A.01.02	<i>Karrantza</i>		Asón
A.01.02.01	<i>Cuadro</i>		Asón
A.01.02.02	<i>Callejo</i>		Asón
A.02	<i>Agüera</i>	Sin. <i>Riomayor</i>	Kantauri itsasoa
A.03	<i>Barbadun</i>		Kantauri itsasoa
A.03.01	<i>Kolitza</i>		Kantauri itsasoa
A.04	<i>Ibaizabal</i>		Kantauri itsasoa
A.04.01	<i>Zalduerreka</i>		Ibaizabal
A.04.02	<i>Zumalegi</i>		Ibaizabal
A.04.03	<i>Mañarierreka</i>	Goialdean <i>Urkieleta</i>	Ibaizabal
A.04.04	<i>Arratia</i>		Ibaizabal
A.04.04.01	<i>Indusi</i>	Goialdean <i>Pozonagusia (-a)</i>	Ibaizabal
A.04.05	<i>Nerbioi</i>	Gazt. <i>Nervión</i>	Ibaizabal
A.04.05.01	<i>Izoria</i>	Goialdean <i>Idas</i>	Nerbioi
A.04.05.02	<i>Altube</i>		Nerbioi
A.04.05.02.01	<i>Bergantza</i>		Nerbioi
A.04.05.02.02	<i>Arnauri</i>	Sin. <i>Atxuriko erreka</i>	Nerbioi
A.04.05.03	<i>Zeberioerreka</i>		Nerbioi
A.04.06	<i>Cadagua</i>	Hist. <i>Salcedón</i>	Ibaizabal
A.04.06.01	<i>Itzalde</i>		Cadagua
A.04.06.02	<i>Herrerías</i>		Cadagua
A.04.06.02.01	<i>Ibaizabal</i> <sup>19</sup>	Hist. <i>Ibalzibar</i>	Cadagua
A.04.06.02.02	<i>Artziniega</i>		Cadagua
A.04.06.02.03	<i>Ayega</i>		Cadagua
A.04.07	<i>Asua (-a)</i>		Ibaizabal
A.04.08	<i>Galindo</i>	Goialdean <i>Agirtza</i>	Ibaizabal
A.04.08.01	<i>Ballonti</i>	Sin. <i>Capetillo</i>	Ibaizabal

<sup>17</sup> Euskal Herritik kanpo.

<sup>18</sup> Euskal Herritik kanpo.

<sup>19</sup> Azentuazio preparoxitonoa du: *Ibáizabal*.

<b>Hierarkia</b>	<b>Izena</b>	<b>Oharrak</b>	<b>Arroa</b>
A.04.09	<i>Gobela</i>		Ibaizabal
A.05	<i>Butroe</i>	Gazt. <i>Butrón</i>	Kantauri itsasoa
A.06	<i>Estepona</i>		Kantauri itsasoa
A.07	<i>Oka</i>		Kantauri itsasoa
A.07.01	<i>Goiolako</i>		Kantauri itsasoa
A.07.02	<i>Omaerreka</i>		Kantauri itsasoa
A.08	<i>Lea</i>		Kantauri itsasoa
A.09	<i>Artibai</i>	Hist. <i>Ubilla</i>	Kantauri itsasoa



## 2. Gipuzkoako kostaldean itsasoratzen diren ibaiak (denera 59)


Hierarkia	Izena	Oharrak	Arroa
A.10	<i>Deba</i>		Kantauri itsasoa
A.10.01	<i>Aramaio</i>		Deba
A.10.02	<i>Arantzazu</i>		Deba
A.10.02.01	<i>Araotz</i>		Deba
A.10.02.02	<i>Olaran</i>	Sin. <i>Olabarrieta</i>	Deba
A.10.02.03	<i>Urkulu</i>	Goialdean <i>Arberreka</i>	Deba
A.10.03	<i>Ego</i>		Deba
A.10.04	<i>Aranerreka</i>		Deba
A.10.05	<i>Lasturerreka</i>	Goialdean <i>Arrospide</i> edo <i>Lasao</i>	Deba
A.11	<i>Urola</i>		Kantauri itsasoa
A.11.01	<i>Ibaieder</i>		Urola
A.11.01.01	<i>Aratzerreka</i>		Urola
A.11.01.02	<i>Errezil</i>		Urola
A.11.02	<i>Granadaerreka</i>		Urola
A.11.03	<i>Arroaerreka</i>		Urola
A.12	<i>Oria</i>		Kantauri itsasoa
A.12.01	<i>Urtsuaran</i>		Oria
A.12.02	<i>Eztanda</i>		Oria
A.12.02.01	<i>Argisao</i>		Oria
A.12.02.02	<i>Arriaran</i>		Oria
A.12.03	<i>Agauntza</i>		Oria
A.12.04	<i>Zaldibierreka</i>	Goialdean <i>Amundanain</i>	Oria
A.12.05	<i>Amezqueta</i>		Oria
A.12.06	<i>Araxes</i>	Sin. <i>Errekaundi</i> , <i>Azpirotz</i>	Oria
A.12.07	<i>Elduain</i>	Berastegiko zelaian <i>Zelaia</i>	Oria
A.12.08	<i>Asteasuerreka</i>		Oria
A.12.09	<i>Leitzaran</i>		Oria
A.12.09.01	<i>Erasote</i>		Oria
A.12.10	<i>Santiagoerreka</i>		Oria
A.13	<i>Urumea</i>	Goizuetan <i>Errekaundi</i>	Kantauri itsasoa
A.13.01	<i>Bedaran</i>		Urumea
A.13.02	<i>Zumarrezta</i>		Urumea
A.13.03	<i>Urdiñola</i>		Urumea
A.13.04	<i>Añarbe</i>		Urumea
A.13.04.01	<i>Elama</i>		Urumea

<b>Hierarkia</b>	<b>Izena</b>	<b>Oharrak</b>	<b>Arroa</b>
A.14	<i>Oiartzun</i>		Kantauri itsasoa
A.15	<i>Bidasoa (-a)</i> <sup>20</sup>		Kantauri itsasoa
A.15.01	<i>Baztan</i> <sup>21</sup>		Bidasoa
A.15.01.01	<i>Aranea (-a)</i>		Bidasoa
A.15.01.02	<i>Iñarbegi</i>		Bidasoa
A.15.01.03	<i>Aranea (-a)</i>		Bidasoa
A.15.01.04	<i>Beartzun</i>		Bidasoa
A.15.01.05	<i>Artesiaga</i>	Sin. <i>Mizpirako erreka</i>	Bidasoa
A.15.01.05.01	<i>Arbuz</i>		Bidasoa
A.15.01.06	<i>Aiantsoro</i>		Bidasoa
A.15.01.07	<i>Zeberiko erreka</i>		Bidasoa
A.15.01.07.01	<i>Marin</i>		Bidasoa
A.15.02	<i>Ezkurra</i>		Bidasoa
A.15.02.01	<i>Basakaitz</i>		Bidasoa
A.15.02.02	<i>Urtzuriko erreka</i>	Sin. <i>Aizkolegiko erreka</i>	Bidasoa
A.15.02.03	<i>Ezpelura</i> <sup>22</sup>		Bidasoa
A.15.02.03.01	<i>Anizpe</i>		Bidasoa
A.15.02.03.02	<i>Ameztiko erreka</i>		Bidasoa
A.15.03	<i>Meorbeburuko erreka</i>		Bidasoa
